



## **Beasain eta Ormaiztegi artean pasabidea egongo da, A-636 errepidearen errodadura-geruza berria zabaltzeko Bergara noranzkoan**

***Urriaren 14ko 20:00etatik urriaren 17ko 13:00etara***

Ostiral honetan, urriak 14, 20:00etatik asteleheneko 13:00ak arte, Bidegik zoruaren errodadura geruza berria zabalduko du A-636 autobidearen bi errailetan, Bergarako noranzkoan, eta zoru berriaren seinale horizontalak margotuko ditu. Birgaitze-proiektuak, zorua osorik berritzea aurreikusten du 5,2 km-ko zatian eta bi noranzkoetan, Beasain eta Ormaiztegi artean.

Asteburu honetako lanak bi fasetan egingo dira, baldintza meteorologikoei lotuta. Lehenengoan, ostiraleko 20:00etatik larunbateko 16:30ak arte, 2,7km-ko zatia asfaltatuko da 0 kilometrotik 2,700era. Bigarren zatian, 2,700 eta 5,200 kilometroen arteko tarteak egingo dira igandeko 19:00etatik asteleheneko 13:00ak arte. Hori dela eta, erreiak itxita egongo dira eta zirkulazioa Beasain noranzko erreietako batean prestatutako pasabidetik desbideratuko da.

Lanak gauzatzeko, ostiralean 20:00etan N-I eta A-636 errepideen arteko 417B lotunea itxiko da Donostia noranzkoan, eta halaber, larunbateko, 00:00etan N-I eta A-636 errepideen arteko 418 lotunea itxiko da, Gasteiz noranzkoan. Bi itxierak larunbateko 08:00ak arte mantenduko dira. Itxita egongo dira, halaber, azpiestazio elektrikoaren pareko errotondaren 3. lotuneko sarrera-irteerak, larunbateko 07:30etik 17:30era eta igandeko 19:00etatik asteleheneko 05:00etara. Irizarreko biribilgunearen lotunea ere, 5,000 kilometro puntuan itxita egongo da igandeko 19:00etatik asteleheneko 13:00etara. Biak Ormaiztegin. Alternatiba gisa, Bergarako noranzkoan Ormaiztegiara doazen trafikoei GI-2632 errepidea erabiltzea gomendatzen da.

Eragiketa hau urriko lehen asteburuan egindakoaren jarraipena da, orduan zabaltzen zuten zoru berria Beasaineko noranzkoan. Orduan bezala, oraingoan ere 100 langile inguruk hartuko dute parte. Hauekin batera 47 kamioi, transferentzia-silo bat, errodadura-geruza berriaren 3 zabaltzaile makina, 4 trinkotzailek eta seinale horizontalak margotzeko 2 makina arituko dira.

Zoruaren egitura birgaitzeko proiektuak 4.117.295 €-ko aurrekontua du, gehi BEZa, eta 7 hilabeteko egikaritze-epea. Bidegik autobidearen erabiltzaileek sortutako funtsekin egingo dio aurre inbertsioari.

Zarautz, 2022/10/13



## **Desvío entre Beasain y Ormaiztegi para extender la nueva capa de rodadura de la A-636 en sentido Bergara**

***Desde las 20:00h del viernes 14 hasta las 13:00h del lunes 17 de octubre***

Desde las 20:00h de este viernes, 14 de octubre y hasta las 13:00h del lunes 17, Bidegi procederá a extender la nueva capa de rodadura del firme en los dos carriles de la autovía A-636 en sentido Bergara y a pintar las señales horizontales del nuevo firme. El proyecto de rehabilitación comprende la renovación integral del firme en un tramo de 5,2kms en ambos sentidos entre Beasain y Ormaiztegi.

Los trabajos de este fin de semana se realizarán en dos fases y sujeto a las condiciones meteorológicas. En la primera, que va desde las 20:00h del viernes y hasta las 16:30h del sábado, se asfaltarán un tramo de 2,7km desde kilómetro 0 hasta el 2,700. El segundo tramo entre el pk 2,700 y el 5,200 se ejecutará desde las 19:00h del domingo hasta las 13:00h del lunes. Con tal motivo los carriles estarán cerrados y el tráfico se desviará por el *bypass* que se habilitará en uno de los carriles de la autovía sentido Beasain.

Los trabajos implicarán el cierre el viernes a las 20:00h del enlace 417B de la N-I con la A-636 sentido Donostia y del cierre a las 00:00h del sábado del enlace 418 de la N-I con la A-636 en sentido Vitoria-Gasteiz. Los dos cierres se mantendrán hasta las 08:00h del sábado. También estarán cerrados los carriles de entrada y salida 3 de la rotonda de la subestación eléctrica entre las 07:30h y las 17:30 del sábado y desde las 19:00h del domingo hasta las 05:00h del lunes. Así mismo los enlaces de la rotonda de Irizar en el pk 5,000 permanecerán cortados desde las 19:00h del domingo hasta las 13:00h del lunes, ambos en Ormaiztegi. Como alternativa a estos cierres los tráficos que en sentido Bergara se dirijan a Ormaiztegi deberán utilizar la carretera GI-2632.

Esta operación es continuación de la realizada el primer fin de semana de octubre cuando se procedió a la extensión del nuevo firme en sentido Beasain. Al igual que entonces en esta ocasión participarán unos 100 operarios, 47 camiones que transportarán el material, 1 silo de transferencia, 3 extendedoras de la nueva capa de rodadura, 4 compactadoras y 2 máquinas para el pintado de la señalización horizontal.

El proyecto de rehabilitación estructural del firme cuenta con un presupuesto de 4.117.295€ más IVA y un plazo de ejecución de 7 meses. Bidegi hará frente a la inversión con los fondos generados por los usuarios de la autovía.

Zarautz, 2022/10/13